

Gizarte eta animazio komunitarioa

Animazio soziokomunitarioaren inguruko
dosierra

Ainhoa Aralucea Itza -2019.01.31-

Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte Langintzako Gradua

4. Maila

Irakaslea: Miren Kontxesi Berrio-Otxoa Otxoa de Angiozar

Aurkibidea

Sarrera.....	2
1. Animazio Soziokomunitarioaren testuinguratze teorikoa	2
Definizioa.....	2
Oinarriak	6
Ezaugarri bereizgarriak	6
Sustatu asmo dituen balioak	8
Jardunbideak eta eremuak.....	8
2. Animazio Soziokomunitarioaren profesionaltasunaren arloko funtzioak, ezaugarriak eta jarrerak	9
Ezaugarriak	9
Funtzioak	10
Jarrerak.....	11
3. Animazio Soziokomunitarioaren ekimen biren deskribapena.....	12
Ekimena I: Bizilagunak	12
Ekimena II: Abaurregain	12
4. Gelan gauzatutako erronkekin eta gelako jardunekin jorratutako gaien deskribapena	13
4.1. Hitzaldia.....	13
4.1.2. Boluntariora	15
4.1.3. Klasean hitzaldiaren bidez egindako ekintza: BIZIPOZA.....	17
4.2. Tertulia dialogikoa	17
4.2.1. Klasean tertulia dialogikorako erabilitako gaia: AISIA.....	18
4.2.2. Klaseko tertulia dialogikoaren inguruko desglosea	20
4.3. Euskaraldia.....	21
4.4. World kafea.....	22
5. Txosten-egilearen gogoeta jorratutako gaiez.....	22
Bibliografia.....	23

Sarrera

Lan honen bidez, gure ikasgaia den animazio soziokomunitarioaren dossier bat garatzeari ekingo diot. Helburua animazio soziokomunitario edo soziokulturalaren terminoa osoki ulertu eta haren inguruan ikasitakoaren gehitze bat eginez, txosten bat sortzea izango litzateke.

Horretarako asteko, Animazio soziokulturalaren testuinguratze teoriko bat egitera ekingo diot non, definizioa, oinarriak, ezaugarriak, sustatu asmo dituen balioak, gertuko eremuak eta jardunbideak azalduko ditut. Garapen teoriko bat den heinena, iturri zientifiko eta autore ezberdinez baliatuko naiz, “*Animación sociocultural: acercamiento conceptual*” testua oinarritzat hartuta.

Jarraitzeko, bigarren atalari emango diot hasiera, aurretik egindako teorizazioaren sakontze bat garatuko dut, animazio soziokulturalaren funtzioak zehaztuz eta profesionalaren ezaugarri eta jarrerak finkatuz.

Jada teorikoki nahiko sakondu ondoren, praktikotasunera bideratuko dut lana eta animazio soziokomunitarioaren bide garatutako bi adibide erreal adieraziko ditut; bata Abaurregainen inguruan eta bestea Bizilagunaken inguruan, ikustaraziz dinamikaren eraginkortasuna erreal dela.

Aurretik esan bezala, lan hau klasean izandako ikasgai baten baitan garatzen den lana da eta beraz, laugarren puntuan, klasean honen inguruan egindako ekintzak deskribatuko ditut. Hauek izango dira: tertulia dialogikoa eta hitzaldia.

Amaitzeko, gogoeta pertsonal bat sortuko dut, teorizazio eta praktikaren batze bat eginez eta hausnarketa ahalik eta kritikoen bat sustatu eta eraginez.

1. Animazio Soziokomunitarioaren testuinguratze teorikoa

Definizioa

Animazio soziokomunitarioa ez da hezkuntza mekanizista eta kulturista. Animazio soziokomunitarioak animatzailearen eta animatua den erabiltzailearen arteko hainbat rol desberdin erabiltzea eskatzen du. Animatzaileak gutxiko-gutxika erabiltzaileari bere ezonegonak barneratzen zailatuko da. Hezkuntzazko erlazioek diskurtso espekulaktiboak

indartuko lituzke. Zapalkuntza, dependentzia eta marginazioa dire komunikazio mota desberdinak gobernatzen dituztenak. Erabiltzailearen jarrera, pasiboa, estatikoa, errezeptorea eta mekanizatua izango da. Animatzaileak ekintza guztiak gordetzearen lana egin beharko du, momentu oro gertatzen denaren arreta izanik.

Ez da jendarteratze bat, hau da ez da gizarte zehatz bateko kulturaren jendarteratze bat baizik eta kulturaren demokratizatze bat. Masa handi batera, herri txikietako kultura desberdinak zabaltzea izango da bere egitekoa. Animazio soziokulturalaren ekintzak, testuinguru zabal batean gauzatu behar dira, egunerokotasuneko sentsibilizazio, parte-hartze eta erresponzabilitatea sustatuz. Sentimendu intimoetatik at dauden teknikak erabiltzen dira, talde dinamikak, pertsonen arteko erlazio dinamikak eta pranifikazio eta gestio metodoen bidez sustatutako teknikak.

Beharrezkoa da errekurtso teknikoak izatea, giza errekurtsoak eta errekurtso ekonomikoak izatea. Ekintza didaktikoak baino gehiago da animazio soziokomunitarioa, programa oso bat garatzen duen eta metodologia bat eskatzen duen esku-hartze mota bat da. Kontuan izango ditu testuinguru bakoitzaren ezaugarriak eta hauek ondo ulertu eta hausnartzean ekingo dio bertan ekintzak sustatzera, ekintza indibidual eta taldekoen gehitzearekin. Ekonomikoki beti eskatuko du sustantzia bat izatea baina beharrezkoa da jakitea, ez dela merkantilizazio bat.

Animazio soziokulturalaren hitzak berak, bi definizio bereizten ditu askotan haien artean oso desberdinak izango direnak. Jarraian kontzeptuaren inguruko hainbat egile desberdinen definizioa emateari ekingo diot, hurbilpen ahalik eta sakon bat izateko eta bakoitzak bere praktikotasuneko ideologiara gehien hurbiltzen dena berenganatzeko.

Maila meta-teorikoan, animazio soziokomunitarioaren epistemologia aztertuko da, alderdi zientifikoa eta kontzeptuen arteko erlazioak izango dira kontuan. Maila meta teorikoaren barruan, zientzia, ideologia teknologia edo praktikotasuna denaren eztabaida agertuko lirateke.

Maila sistematiko kontzeptualean, animazio soziokulturala definitzen duten hitzak, taxonomiak eta kontzeptuak aztertuko dira. “Animazio soziokulturala definitzen duten definizio desberdinen arteko hiru edo lau kontzeptu desberdin identifikatu eta mugatzea lorpen garrantzitsu bat izango litzateke”. (Trilla, 1988).

Maila ideologiko, etiko eta politikoa ere aurki dezakegu. Animazio soziokulturala, ideologikoki jarduten da eta politikoki ez da eta ez du izan nahi neutroa. Ideologiak ezin ditu jarrera guztiak bere gain hartu, aplikatzeko espazio zehatzak izango ditu eta eztabaida teorikorako konpromezuaren baitan egon beharra du.

Ekintza gauzatzen den errealitatearen maila deskriptibo eta azalpenekoan, disziplina soziologikoa, antropologikoa, psikosoziala eta beste hainbatek animazio soziokulturalari errealitatea eta gauzatzen den testuinguruaren ezaugarriak ulertzera lagunduko dio.

Maila teknologiko eta metodologikoan, lortu nahi diren helburuak posible egiteko prozesu eraginkorrak gauzatzean datza, hau da, teknika eta metodologia desberdin eta egokituen bitartez, esku-hartze efiziente eta hobeen bat sortzea lortzea.

Esperientzian landutako maila batean, ekintzaileak berak izandako esperientziak aztertu eta hausnartzearen bitartez lortuko du etorkizuneko ekintzen hobekuntza.

Maila guzti hauen batura oso garrantzitsuak da animazio soziokultural bat ulertzeko eta seguruenik, animazio soziokulturaleko ekintza ugari, maila bat baino gehiago berenganatuko ditu suertatzerako orduan.

Animazio soziokulturala beraz, konotasio polisemikoz jositako adierazpena da, anbigua eta aplikazio eremuan oso zabala. Definizioan, ideologia desberdineko elementuak aurki daitezke, azalpen eta erregulazio teorikoetan agertuko direnak. Etimologikoki, animazioa, bizitza sorrarazten du eta kemena ematen du, zerbaiten gain parte hartzea adierazten du eta horretarako, motibatu eta grina sartzen du.

Animazioa bizitza ematea eta erlazioa da. Bizitza ematean, ekintzak berak programatzen baitu hau, bizitzaren eboluzio garapen bat bideratzen du. Animazioa, sektore finko batekoen bizitza mental zein pertsonala motibatu eta garatzeko bideraturik dago. Bestalde erlazioa da, animazioak bitartekari lana egiten du testuinguru eta ekintzailearen artean eta ekintzaren didaktikarako posibilitateak erakusten dizkigu. Metodo eta teknika desberdinen karaktereen garrantzia azpimarratzen da ekintzarekin lortu nahi den helburuaren sustapenean.

Maillo (1979), horrela definitzen du Animazio soziokulturala; “pertsonek eta pertsonen arteko posibilitateak erne jartzera bideratutako ekintzak dira. Gizarte benefizioa ekar dezaketan bakoitzaren ahalmenak sustatzera bideratzen ditu”:

Valle (1972) egileak aldiz, “dinamika soziala ez dagoen lekuetan hau sustatzera bideratzen du animazio soziokulturala. Aldaketa soziala bilatzen du eta bertaritzen ditu horretara ekintzak kultural eta komunitarioak”.

Ander-Egg (1989) egileak animazio soziokulturalaren definizioa horrela adierazten du; “gizarte teknologia bat da, pedagogia parte-hartzaile bat oinarri duena, bizi kalitaterako alderdi desberdinetan ekitea du helburutzat, mugiarazten, estimulatzen eta jendearen parte-hartzea sustatzen, komunitatearen eboluzio soziokulturala lortu nahian”.

Cembranos eta beste batzuek (1988), sistematizatu egiten dute lau elementuren bitartez: kultura, pertsonen egituraketa, proiektuak eta gizarte eboluzioan. They (1983), animazio soziokulturalaren hiru prozesu zehaztu ditu; lehenengo prozesua non ekintzailea ekingo duen bakoitza errebelatzeari ekingo dion, bigarrena non pertsona eta taldeen elkar ekintza sustatzen duena eta hirugarrena, sormena landuko da, inizatiba eta parte hartzea sustatze asmora.

Simpson (1980) egileak, terminoak barnean dakarren hanbat postulatu adierazten ditu: Askatasuna zapalkuntzaren gainetik dago, esperientzia aktiboa pasiboa baino hobea da, auto zuzentzea beste bat zuzentzea baino hobea da, konpromezu soziala, kritikotasuna eta kolektibotasuna oso garrantzitsuak diren ezaugarriak dira, sentimenduetatik sustatutako ekintzak oso baliagarriak dira eta behar soziokulturalak defizit pertsonal eta sozialen ondorio izan daitezke.

UNESCOK, hurrengo eraran definitzen du “gizarte praktiken elkartze bat da, helburutzat parte hartzea sustatzea duena komunitateen eboluzioan eta dinamika globaleko bizitza sozio politikoetan”.

Laburbilduz, Animazio soziokulturala prozesu arrazional eta sistematiko bat da, pertsona eta taldeen plangintza, programazio eta egitura bat sortu nahi duena modu garden bat bide izanik. Parte hartze aktiboa sustatuz ekiten du eta sortzen du plangintza bat, gizartearen hobekuntza komunitario eta kultural bat eskatzen duena.

Oinarriak

Bost dira Animazio soziokomunitarioaren baitan topatzen ditugun oinarriak: prozesua, metodologia, parte-hartzea, antolakuntza eta aldaketa soziala.

- *Prozesua:* Animazio soziokomunitarioak ekintza eta mentalitate sozialaren aldaketa bat sustatu nahi du eta horretarako denboraz gain, esku-hartze konstante eta sistematiko bat izatea nahitaezkoa da, hau da esku-hartze prozesu bat.
- *Metodologia:* Errealitatea desberdina eta zaila da eta gizarte batek bere behar izan, interes eta testuingurutan jokatzeko du. Ekintza ezin daiteke diskriminatzailea izan eta horretarako esku-hartze metodologia ezartzen da, teknika sozial anitzez beteta.
- *Parte-hartzea:* Animazio soziokomunitarioak, beregain hartzen ditu hainbat elementuetarako beharrezkoa da komunitate beraren parte-hartzea. Zergatik? Azken finean komunitate finko batean esku-hartzeak etorkizunean bere aldetik ibili edo bizitzera gidatu nahi duelako eta beraz parte-hartze aktibo baten bidez, autonomia berenganatu eta haien kabuz proiektuak gauzatzera bideratzen zaielako.
- *Antolakuntza:* Kolektiboa, boluntariorikoa eta antolatua izan behar du. Hau da, kontzientzia parte-hartzaile kritikoa sustatuko duena.
- *Aldaketa soziala:* Animazio soziokomunitarioa aldaketa zehatz bat eskaini nahi duen prozesu baten baitan gertatzen da, beraz, oinarri nahitaezkoa den bat suertatzen zaigu orainoan. Aldaketa nahi hau gabe, animazio soziokomunitarioa ez litzateke posible izango.

Ezaugarri bereizgarriak

- I. Parte-hartze kolektiboa:* Analisi edo sormen aldera parte hartze aktiboa izatea nahitaezkoa da animazio soziokulturalean. Pertsonak bizitza komunitarioan paper bat duela onartzen du. Boluntariorikoa eta pluralismo ideologikoa indartzen du eta errealitatearen ulertze osoago bat izatera bideratzen du, hezkuntza garatzen du eta aldaketa sozialerako prozesuak adierazten ditu.
- II. Bizitza asoziatiboa:* Diru asmorik gabeko instituzio asoziatibo eta boluntarioetan suertatzen da. Viché (1989) zioen; “kolektiboen bizitzetatik sortzen den esku hartzea izango da kolektiboa beraren estruktura sozialak aldatuko dituen

prozesua, ehun asoziatibo bat sortzen eta jada dagoena aldaraziz”. Maillo (1979) “Sormen soziala sustatzeko elkar harremanak eta komunikazioa eboluzionatzera bideratuta dago”. Beraz, bizitza asoziatiboa da animazio soziokulturala sustatuko duen oinarriko ezaugarria.

- III. *Pertsona edo herritarraren protagonismoa:* Gizakiak era kolektiboan bada ere, autoerrealizazio bat bilatzen du, praktika sozialean protagonista da. Pertsona bakoitzak ekintza batzuk sortzen ditu eta ekintza guztiek moduan honek hausnarketa bat egotera behartzen du. Beraz ekintzek teoria eta praktika bat dute bere baitan, prozesu honek esku-hartzeari emango die oinarri eta beraz, ordezkatzailerik izango dira animazio soziokulturalean.
- IV. *Belanauldiartekotasuna:* Ez dauka adin zehatzik, prozesua bera, bakarra, unibertuala eta globalizatzailea da eta esku-hartzen du gizarte ehun oso baten barruan. Badaude prozesu batzuk zeinetan finkatu daitekeen ekintza, gazteentzako animazioa, adin nagusikoentzat... baina animazio soziokulturala berak ez dauka adin zehatzik.
- V. *Bizi kalitatearen hobekuntza:* Gizarte baten barneko pertsona guztien bizi kalitatea hobetzea du helburutzat. Ander Egg (1986) autorearentzako badira hainbat aspektu espezifiko garrantzitsu: parte hartze aktibo bat sustatu nahi duen ekintza eta praktiken batze bat da, jende kopuru handi baten onurarako bideratua dagoena. Parte hartze hau gizarteko jendearekin suertatutako ekintzetan ikusten da eta hauek haien inguruan arazoak kudeatzeko duten gaitasunean. Jendearen inizatiba sustatzeko ekintzaile modura ulertu behar da animatzailea eta elementu didaktikoak eman behar dizkie hau gauzatzeko. Formazio bat beharrezkotzat ikusten den profesio bat da, funtzio, teknika eta metodologia espezifiko batzuetatik sortzen baita.

Animazio soziokulturalak hiru elementu zehazten ditu: parte hartzea, bulkada eta askatasuna. Hiru kontzeptu hauek era global batean ulertu behar dira, pertsona indibidualarekiko eta gizarteko pertsona oro kolektiboki izan dezakeen parte hartze, bulkada eta askatasunerako.

Sustatu asmo dituen balioak

- Edozein prozesu autonomia edo autodeterminazio pertsonala, taldekoa edo komunitarioa bilatzen duena, hezkuntza eta autoformazio bat izan behar du aurretik.
- Elkarrizketarekiko konfiantza, elkar ekintzarako kapazitatea eta elkar ulerkortasuna bai pertsona, talde edo komunitatean.
- Eboluzio humanitario bat sustatzeko elkar lan kooperatiboa, taldean edo komunitatean antolatutakoa izan behar du.
- Etorkizunaz taldeak berak duen erabakitze kapazitatea goraiatzea.
- Indibiduo bakoitzaren kapazitatea baiestea pertsona moduan parte hartze orduan.

Beraz aurrean topatzen ditugun balioak hurrengoak dira: autonomia, sormena, boluntariora, malgutasuna, kooperatibitatea, konpromisoa, erresponsabilitatea, lana, kritikotasuna, konfiantza, hezkuntza eta elkarrizketa.

Jardunbideak eta eremuak

Ekimen sozio-hezitzaile-kultural ugari eta anitzen bitartez bideratzen da pertsonen eta komunitateen garapenerako animazio soziokulturala.

Ander Egg egileak bost kategorian nagusitan sailkatzen ditu gizarte eta komunitateen animaziorako jarduerak:

- *Formakuntza jarduerak*: Ezagutza norberaganatzea eta era ikasi eta kritikoan arazoimena erabiltzeko eta garatzeko laguntzen dute jarduerak hauek. Adibide modura ditugu hurrengo ekintza hauek: tailerrak, kurtsoak, mintegiak, mahai-inguruak, konferentzia zikloak, lan-bilerak, kultur zirkuluak, helduen hezkuntza...
- *Hedapen kulturalerako jarduerak*: Ondasun kulturalera iristea errazten duten jarduerak. Bertan adibideak bi alderditan banatzen ditugu, ondasun hedatua non monumentu historikoak eta museoak ageri diren adibidetzat eta kultura bizikoak, arte galeriak, liburutegiak, fonotekak, bideotekak...
- *Jarduera artistiko ez-profesionalak*: Adierazpena errazten duten jarduerak eta sormenerako lengoaiak ezagutu zein berriak adierazpen forma berriak bilatzeko bide ematen duten jarduerak. Zazpi alor desberdinetan banatzen ditu egileak

dinamika hauek: Artesania eta arte popularra (zeramika, bustingintza, egurrean lana...), arte bisualak (pintura, eskultura, grabatuak ...), arte eszenikoa (antzerkia, mimoa, txotxongiloak...), dantza (ballet-a, dantza folklorikoak, jazz dantza...), musika eta kantua (musika korala, musika taldeak, musika folklorikoa...), hizkuntza eta literatura (literatura tailerrak, egunkari murala, herri egunkaria...) eta azkenik, kultur forma berriak (pelikulak, argazkilartza, ordenagailuekin sorturiko artea...).

- *Jarduera juridikoak:* Jarduera fisikoak, kirolezkoak eta aire librekoak gorputzaren eta garatze fisikoa laguntzen dutenak. Hala nola, aisia aire librean (martxak, kanpaldiak, paseoak...), natura eta ingurugiroaren babesa (txangoak), birsortzea (jolasak), entrenamendu jolasak, gimnasia, heziketa fisikoa, joga, taitxi, arte martzialak eta kirola.
- *Jarduera sozialak:* Elkarre-bizitzari eta behar kolektiboari arreta eta konponbidea ematea errazten duten jarduerak. Adibide modura ditugu, jaiak, bilera eta topaketak antolatzea, auzoak motibatzea ekintza bateratuak egiteko eta gizarte mugimenduetako taldeak indartzeko ekintzak.

2. Animazio Soziokomunitarioaren profesionaltasunaren arloko funtzioak, ezaugarriak eta jarrerak

Ezaugarriak

Ander Eggen aburuz, Animatzaile soziokulturalaren profesionaltasunaren baitako pertsonak, praktika soziokulturalak egiteko beharrezkoak dituen ezaugarri edo elementuak gizakiarenak dira. Hauek dira egileak ezartzen dituen ezaugarriak:

- *Bizitza sorrarazteko ahalmena:* gogoberotasuna azalaraztea eta pertsonen interesa daukaten gauzengatik borroka dezaten animatzea. Honetarako, beharrezkoa da sormena eta metodologia eta teknikak proiektu eta ekintzak aurrera eramane daitezen.
- *Jendearekin erlazionatu eta elkarriketak izateko ahalmena:* Profesional honen baitan jendearekin harremanzaren oinarria ageri da eta horretarako honek, tolerantzia, enpatia, laguntasuna ... izan beharko du.
- *Pertsonak beregain daukan ahalmenarekiko konfiantza eta segurtasuna:* Taldeak bere helburu markatuak betetzeko ahalmena duela sinestea.

- *Heldutasuna*: Bakoitza zelakoa den eta denaren onarpena oso garrantzitsua da, horrela, norbere ekintzen jabe izaten da eta konpromiso gehiago hartzen dira.
- *Zailtasunen aurrean indarra eta irmotasuna erakustea eta izatea*: Ekintza guztietan zailtasunak ageri dira eta hauen aurrean ez blokeatzea eta aurre egitea soluzio arin, egonkorrak eta onak emanez.
- *Lanbidean bokazioa izatea*: beharizanen, arazoen, sufrimenduen ... aurreko sentsibilitate bat izatea.

Funtzioak

Animazio soziokomunitarioaren baitan dauden profesionalak hainbat funtzio betetzen dituzte, gehienetan hurrengoak izan ohi dira:

- *Ikerketa soziala eta kulturala*: Testuinguru soziala ikertu, aztertu, proiektuak sortu eta gizartearen beharizanak asetu.
- *Akuilatu eta motibatu*: iniziatiba sustatu, aukera parekidetu eta lidergoa banatu.
- *Dinamizatzaile prozesuak katalizatu*: prioritateak ezarri, sormena sustatu, planifikazioa sortzeko baliabideak eman.
- *Talde barnekoen arteko erlazioak*: ideien elkarteratzea sortu eta parte-hartzea sustatu.
- *Talde kanpo zein barneko erlazioak*: taldearen kapazitatean konfiantza izan, kolektiboki hartu erabakiak eta taldekideek erresponsabilitateak hartzea sustatu.
- *Programazioa*: Proiektuak aurkeztu, beharren araberrako helburuak markatu eta errekurtsuak integratu.
- *Ebaluazioa*: Faktore sozialak, talde erlazioak, proiektuen gauzatzea eta gertaera guztien ebaluazioa egitea.
- *Antolaketa*: errekurtsuak aurreikusi, esku-hartze eremuak definitu eta erabakiak hartu.
- *Asistentzia tekniko eta gestioa*: Instituzioekin hitz egin laguntzarako, beka gestionatu, laguntza ezagutu eta informazioa eskatu.
- *Orientazioa eta asistentzia tekniko*: aldaketak erraztu.
- *Adierazpena eta informazioa*: taldearen ideiak errespetatu eta komunikazioa sustatu.
- *Hezkuntza*: Aisia, elkarbizitza, autoestima eta balioak erakutsi.

- *Zerbitzuen aurreikustea*: errekurtsoak prestatu eta bilatu, zentro desberdinen parte-hartzea sustatu eta beharrezkoak diren instalazio edo baliabideak lortu esku-hartzerako.
- *Koordinazioa*: animatzailea eta taldearen zein edozein entitateren arteko informazioa pasatzea.

Jarrerak

Berebiziko lotura bat sortzen da aurretik animazio soziokulturaleko profesionalaren ezaugarri, funtzioen eta jarreraren artean, batak bestera gidatuko baitu. Hauek dira animatzaile soziokulturalak bere baitan dakarren bete beharreko jarrerak nagusiak:

- *Enpatia*.
- *Entzute aktiboa*.
- *Errespetua eta bestearekiko ulerkotasuna*.

Jarrera nagusi hauetaz gain, animatzaile kulturalak talde multidisziplinari baten baitan egingo du gain eta horregatik beste jarrera batzuk berenganatuko ditu:

- Talde kolektiboetan parte hartzeko gogoia.
- Profesional guztien estrategia eta arazoei emateko ebazpen desberdinekiko errespetu eta interesa.
- Taldean hartutako erabakien eta araudiaren aurreko onarpena.
- Besteen lanarekiko balorazioa, erresponsabilitateak denen artean banatuz.

Elkarrizketa esan bezala, esku-hartzearen oinarria izango da eta beraz profesionalak hurrengo jarrerak izan behar ditu honekiko:

- Besteen iritziekiko errespetua.
- Ideien azalpen zuzen baten aurreko interesa.
- Lanaren inguruko informazioa eta trasladapenaren beharrezkotasunaren balorazioa.

Jarrera hauez gain, beste hainbat aurki ditzakeguz:

- Metodo eta teknikak erakustea.
- Planifikazioa izatea.

- Formakuntza on bat garatua izatea.
- Momentuko arazoei aurre egiteko grina
- Pazientzia

3. Animazio Soziokomunitarioaren ekimen biren deskribapena

Ekimena I: Bizilagunak

Getxoko udaletxeak 2013an Egizu elkartearekin batera bizilagun proiektuan parte hartzeari ekiten dio, proiektu bat SOS arrazakeriaren barruan kokatzen dena, hau, euskara eta interkulturalitatea landu nahi batetik sortzen da. Urte bat arinago sortzen da Bizilagun Gipuzkoan Europako zortzi herrialdeetako proiektu modura. Getxok duen politika dela eta oso ondo egokitzen zen proiektua gauzatze ordurako.

Dinamika, familia etorkinen eta herriko bertako familien arteko kontaktua egitean datza. Hori gauzatzeko dinamizatzailerik beharrezko da, nolabait familien arteko erreferente izango dena antolatze orduan. Getxon 32 familia ezberdinekin egiten da dinamika, 12 herrialde desberdinetako pertsonekin eta 16 dinamizatzailerik medio. Bazkari bat antolatzen da familia hauen elkargune modura eta bertako helburua da hauen arteko elkar ezagutza eta disfruta, kulturarteko hartu eman bat suertatuz. Elkar kultura eragin hau, bazkari desberdinen bitartez eta kontakizun anitzen bitartez lortuko da.

Ekimen honek bi arazoi azpimarratzen ditu bere garrantzian; alde batetik, helburu orokorren baitan egiten da, hau da, kulturartekotasuna sustatzea eta elkar ezagutzea eta bestalde, ikusgarri egiten direlako Getxon bizi diren euskaldunak, guztira 25.000 euskaldun baitira. Amaitzeko, parte hartzaile denak batu eta amaiera eman zitzaion dinamikari, Victoria Eugenia.

Dinamika hau, animazio soziokulturaleko dinamika bat da eta bere ezaugarriak ditu, herri finko bateko erabiltzaileak hautatu eta haien arteko ekintza bat sortzen baita non elkar ezagutza eta ulertzea den protagonista.

Ekimena II: Abaurregain

Gizarte langile bat, bere herritzat definitzen duen lurraldea den, Abaurregainen sortzen duen animazio soziokomunitarioari buruzko da ekimen hau. Abaurregain, Baiaratik

isolatuta dagoen herri bat da non neguak oso gogorrak dira. Gizarte langileak herriko elkartean egiten du lan, zehazki, osasun etxeko gizarte langilea da eta alde batetik, bertako burokraziaren baitako paperak burutzen ditu eta bestetik, proiektu komunitarioak gauzatzen ditu.

Ekimena duela bi urte jaio zen, medikua gizarte langilearengana doanean eta esaten tristura orokor bat sumatzen zuela herrian. Negu hotzak, jende nagusi asko egotea, astean zehar herrian deus ez egotea aisialdi modura ... hainbat arrazoi dira tristura honen errudun. Diagnostiko honen aurrean, gizarte langilea etxez etxe joan eta jendearekin hitz egin zuen arazoaren inguruan. Konturatu zen, herriko emakumeek zerbait egitea nahi zutela eta horretarako bilera bat deitu zuen non 11 emakume eta gizonezko bat. Bertatik hiru gauza atera ziren: soinketa, informatika eta argazki zaharren berreskurapena. Proiektua aurrera zihoala konturatu ziren negua errazago pasatzen zutela eta diagnostikoa hobera zihoala. Alboko herriak proiektua ezagutzean, haiek ere haien herrietan nahi zutela esan eta Baiara osora zabaltzen joan da.

Ekimen hau animazio soziokomunitarioaren baitan sartzen da, aurretik adierazitako hainbat aspektugatik. Komunitatearen elkar ekintza, parte-hartzea, gizartearen aldaketa nahia eta pertsona eta herriaren protagonismoaren beharra.

4. Gelan gauzatutako erronkekin eta gelako jardunekin jorratutako gaien deskribapena

Animazio soziokulturalak bere ekintzak gauzatzeko hainbat modu ditu eta horien artean klasean, bi aztertu eta gauzatu ditugu: tertulia dialogikoa batetik eta hitzaldia bestetik. Ekintza hauen nondik norakoak aztertzeaz gain, klasera bertaratu ditugu, bata aisiaren inguruan hausnartuz (tertulia dialogikoa) eta bestea, boluntariotzaren inguruan Bizipozaren eskutik. Jarraian bi arlo hauek jorratu eta bai teorikoki bai klasean praktikoki egindakoaren inguruan testu garatu bati ekingo diot.

4.1. Hitzaldia

Atal hau jorratzeko lehenik eta behin, hitzaldi baten nondik norakoak azalduko ditut eta gero, klasean gauzatutako erronka bat izan denez, klasean bertan egindako eta gertatutakoaren inguruko azalpen deskribapena egingo dut.

Hitzaldia denoi ezaguna egiten zaigun teknika bat da, seguruenik noizbait denok parte hartu dugu batean edo gu izan gara bertako hizlari. Gai baten inguruan azalpen sakon bat ematean datza, indibidualki zein kolektiboki. Bi eragile izango ditugu ekintzan, alde batetik hizlaria edo hizlariak eta bestetik entzuleak.

Castro Lerma, I. (2017), horrela definitzen du hitzaldia: “Gai zehatz baten inguruan esposizio akademiko bat gauzatzen denean, aurkezpen argi eta estrukturatu batekin eta informazioa emateko edo entzuleei gai baten inguruan konbentzitu ahal izateko helburu nagusiarekin. Diskurtsoa ere deritzo esposizio honi eta arrazoibide, deskribapen eta narrazioz egon behar da sortua”.

Hitzaldiak zelan gauzatzen diren kontuan izanik, onak edo txarrak izan daitezke eta beraz erronka bat da hau gauzatze soila. Hitzaldia sakona eta garatua izateko hasteko aukeratutako gaiaren interesari eman behar diogu garrantzia eta beraz entzulearen eta testuinguruaren araberakoa izango da. Hitzaldia gauzatu aurretik ikerketa sakon bat egin behar da, egunkarietako artikulua, dokumentalen, liburu zientifikoaren, pentsalari ospetsuen ideietan eta beste hainbat iturritan miatuz. Bestalde egitura bat izatea oso garrantzitsua da, kronologia bat sortu, ideien zerrenda anitz bat, eskema edo mapa kontzeptual bat osatuz.

Hitzaldi bati hasiera emateko, sarrera labur batetik hasi behar gara, testuingurua aurkeztuko da bertan eta gaiaren erabakiaren zergatia. Garatu ondoren eta gaia itxi ahal izateko ondorio sendoak jorratzea ezinbestekoa da hausnarketa propiorako bide irekiz. Hau modu naturalean ematea da garrantzitsua, entzuleen arreta berenganatuz eta erritmo egokia eramanez. Interesgarri eta erakargarria egiteko iritziak eta bizitako gertaerak, egunerokotasunarekin lotzea bide egokia izan daiteke, datuak hobeto barneratu ahal izango dira eta errealitatera ekarriko dira.

París, C. (2014) egileak hitzaldia jaso edo emango den lekuaren garrantzia azpimarratzen zuen: “Hitzaldia gauzatuko den lekua ondo erabakitzea garrantzitsua da. Akustika ona, zabalera, errekurso teknikoak eta arrakasta lortzeko beharrezkoak diren beste hainbat elementu ditugun jakin behar dugu. Aukeratutako gelan hizlariaren kokalekua ere garrantzi handikoa da; hizlaria jesarrita edo zutik egongo den jakitea, bera izango baita arretaren puntu zentrala eta bere gorputza ikasketaren objektua.”

Hitzaldi baten formatua normalean ez da oso aldakorra, aldatu ohi dena asmoa da, hizlariak transmititu nahi duena. Zentzu honetan, hizlariaren edo antolatutako pertsonaren helburua informatzea, konbentzitzea eta ekintzarako motibatzea izan ahalko lirateke (ITESM, s.f.).

Hitzaldi bat hainbat rol agerian izaten dira, Castro egileak hurrengoak aipatzen ditu, Castro, I (2017): “Hizlariak hitzaldian zehar dituen rola hainbat izan daitezke. Askotan hitzaldiaren baliabide hau, ikasleen aurrean hitzaldiak emateko erabili ohi da eta honakoetan ikasleek, informazio kontzeptuala jasotzen dute irakaslearengan ahoz. Hitzaldi hau ondo atera dadin, ikasleek jada duten jakintza batetik hasi eta garatu egin behar da azaldu nahi den gaia. Ikasleak ere bere rola hartu beharra dauka, aukeratutako gaia beste ikasle eta irakasleei azaltzeko modua, eboluzio egoki batekin eta ahoz zein idatzizko baliabide egokiekin. Teknika hau erabilita, ikasleak pentsamendu kritikoa berenganatuko du prozesu kognitibo konplexuen bitartez: azterketa, ikerketa, sintesia, ebaluaketa, arazoen konponketa eta erabakiak hartzean”.

Ander Egg-en sailkapena kontuan izanik, hitzaldia formakuntzaren barruan sartuko genuke. Jakintzaren berenganatze eta arrazionalitatearen kritikotasunarekin bat eginez.

4.1.2. Boluntariotza

Gizarte langintzako graduko hirugarren urteko Gizarte komunitateko ikasgaian, ni zehazki, intervenção comunitaria em a rede portugalen ERASMUSen egon baintzen hainbat teoria ikasi genuen boluntariotzaren inguruan. Sonia Guadalupe irakasleak esandakoaren araberrako definizioa adieraziko dut nik jarraian.

Boluntariotza elkartasun antolatua da, zeinetan gizartearen arazoen konponbideetan esku-hartzen den. Jardun-eremua herritarrek gizartearen garapenarekiko agertzen duten ardura eta inplikazioa da. Boluntariotza, azken batean, bizi garen errealitatean parte hartzeko eta bera eraldatzeko tresna da. Bi sektore izan dira gizartearen behar indibidualei eta talde-beharrei erantzuna eman dietena, batetik, sektore Publikoa, zeinek ordezkari-sistematik eratorritako erakundeek kudeatzen dutena eta bestetik, sektore pribatua dugu, ekimen pribatuaren eta norbanakoen baliabideen menpe dagoena. Sektore horiekin batera pertsonak sortutako harreman sarea ere garrantzi izugarria du eta sare horren barruan badaude antolatuak eta ez hain antolatuak diren ekimenak, baita

hainbat ideologia ere. Horrela, laguntza ematen zaie administrazioak eta merkatuak lagundu ez dituzten gizartearen eskaerei eta, batzuetan, errealitatea ulertu eta kudeatzeko proposamen alternatiboak ere planteatu dituzte. Definizioa honen baitan kokatzen ditugu irabazi asmorik ez duten erakundeak: elkarteak, plataformak, koordinakundeak, GKEak, fundazioak edo gizarte eragileak. Hauei Hirugarren Sektorea deritze eta elkartasuna eta erantzun soziopolitikoak antolatzeaz gain, gero eta pisu ekonomiko handiagoa dute.

Boluntariotzak gizarte eskaerari erantzuten dio honako elkarte hauek osatuz: guraso elkarteak, ikasle elkarteak, aisialdirako elkarteak, Hegoaldeko herrialdeekin lankidetzan jarduten duten erakundeak, aldarrikapen ekologistak, erakunde feministak eta militarren kontrako erakundeak, kaltetuen taldeak, adinekoren elkarteak... Esparru honetatik egiten du bere aldarrikapena boluntariotzak eta honexetatik ere gizartearen politikaren eta ekonomia sistemaren kritika egiten du. Boluntariotzak gizarteari begira dago uneoro, herriaren garapena eta gizartejustizia oztopatzen duen oro salatu ahal izateko. Boluntariotza, elkartasuna, partaidetza, ekintza, antolakuntza, doakotasuna euskarri diren balioak ditu bere gain lankidetzat bat eskatzen dutena.

Boluntariotza pertsona gisa garatzeko balio izateaz gain, ezinbestekoa dugu gizartearen garapenean. Alde batetik, herritarren parte hartzea ahalbidetzen du, eta bestetik, gizartearen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du, gizarte bazterketan dauden talde eta pertsonen interesak babesten ditu, gizarte premia zehatzak konpontzen laguntzen du, eta egoerak hobetzeko proposamen berriak eta alternatiboak eskaintzen ditu originaltasunez eta ausardiarekin. Boluntariotzaren erakundeek gizarte-helburu funtsezkoenak lortze aldera lan egiten dute: ingurumenaren babesa; bazterketa egoeran dauden pertsonen eta taldeen lan munduratu; baztertze egoerak saihestu; garatzeko bidean dauden herrialdeei laguntza eman; giza-eskubideak babestu; komunitatearen garapenerako lan egin: kulturaren, kirolaren, hezkuntzaren... sustapena egin... Boluntariotza ezinbestekoa da, aurretik aipatutakoaz aparte, etengabe aritzen delako gizartearen beharrak asetzen. Besteen aurretik doa konponbideak bilatzeko orduan. Boluntariotzak gure bizitzaren, auzoaren, herriaren eta, azken batean, gure planetaren gaineko protagonismoa eta kontrola lortzen laguntzen du. Ekintza boluntarioak gutxiengo batek agintzea ekiditen du, gure ahotsa entzunarazten baitu eta parte hartzea lau urterik behin bozkatzea baino gehiago izatea lortzen baitu.

4.1.3. Klasean hitzaldiaren bidez egindako ekintza: BIZIPOZA

Erronka hau gauzatzea zegokion taldeak, lehendabizi hitzaldia metodoaren nondik norakoak azaldu zuten eta gero, Bizipoza deituriko elkarteko eragile bat ekarri zuen klasera hitzaldi bat eman zezan. Hitzaldi honetan azaldu beharrekoa Bizipoza elkarteak berak animazio soziokulturalaren inguruan zein jardute eramaten dituen aurrera zen, hitzaldi formatua oinarri izanik. Aurretik esan bezala, hitzaldia animazio soziokulturala beregain duen metodoa da eta bai ikasle bai irakaslearen interakzio parte-hartzaile bat eskatzen du.

Bizipoza, izaera bereziko gaiak lantzen dituzten eta haur eta familien ongizatea helburu duten 32 elkartek osatzen duten elkarte komuna da. “Munduak guztiontzat beharko luke” logopean lan egiten duen elkarte hau, boluntariotzaren bidez sustatzen da. Elkarteko kideak eta hizlariak Bizipoza elkartean boluntariotzaren bidezko animazio soziokulturaleko ekitea azaldu nahian ibili da eta azaldu du, nola hainbat gai jorratzen diren honen bitartez.

Honez gain, hizlariak Bizipozak elkarteak sortutako ekintzen eta proiektuen berri eman digu: urtero egiten den jaialdia, jardunaldiak, irri aldizkaria eta beste hainbat ekintza. Amaitzeko, boluntario izatera gonbidatu zigun gabonetarako prestatuta zituzten gutun formatuan bidalitako animazio kanpainaren bidez.

Amaitzeko, boluntariotzaren inguruan talde txikietan banatu eta eztabaidatu genuen. Gizarte langintzako ikasle edo etorkizuneko profesional modura boluntariotzaren paperaren inguruko nondik norakoak adierazi nahian izan ginen dudatan jarri zen bi eragile hauen papera.

4.2. Tertulia dialogikoa

“Liburuak irakurtzeko eta haietaz hitz egiteko era berezi bat da Tertulia Literario Dialogikoa. Tertulia mota horrek, alfabetatze kognitibo soilaz gain, sozializazio-prozesu zabalago baten ardatz gisa hartzen du irakurketa. Horrela, kultura idatziak zentzu komunitarioa hartzen du. “ (Hik Hasi, 2005).

“Se trata de continuar la construcción del conocimiento a partir del diálogo que inició el autor al escribir su obra, primero de una forma individual-autor-lector,

para pasar después a enriquecerlo aún más a través de un diálogo colectivo- autor-lectores que encierra y supera al anterior al producir más y mejores aprendizajes” (Loza Aguirre, 2004. Pág. 67).

Tertulia dialogikoa aurrera eramateko momentuan kontuan izan behar dugu partaideei iritzia eskatu behar zaiela, pertsona bakoitzak aurretik azpimarratua izan behar duela irakurritakoan topatutako ideia erakargarri edo interesgarriak, orrialde batzuetan ageri den edukia komentatu beharra dagoela eta parte hartzen duten pertsonak hainbat konpromiso izan behar dituztela tertulia dialogikora etorri aurretikoak (adostutakoa irakurrita eta landuta ekartzea adibidez).

Azpimarratu beharra dago parte hartzearen garrantzia, tertulia dialogikoaren oinarrietako bat baita. Hau ondo irten dadin hainbat estrategia izan behar ditu hizlariak. Horrez gain, arauak ere jartzea ezinbestekoa da, hala nola, errespetua iritzi guztiekiko, txandak errespetatzea etab. Tertulia dialogikoak hainbat rol banatzen ditu, adibidez dinamizatzailerena.

Aukera ematen digu hainbat gauza lantzeko, edozein gai izan daiteke, politikoa, soziala, momentukoa, historikoa, artearen ingurukoa ... genero eta estilo desberdineko testu edo liburuen bitartez, jakintza eremu askotara zabalduz. Landuko den liburu, artikulua edo testu zatia aukeratzeko zenbait arau jarraitu behar dira: irakurlearen adina, luzera, gaia, eremua ...

Beraz, tertulia dialogiko baten bitartez, modu kolektibo batean ikasle edo egiten den eremuko jendearen, parte-hartze eta elkarreragina sustatzen da, kritikotasun eta ideologia transmisio baten bitartez.

Ander Egg-en sailkapenean sartu eta hausnartuz gero, hitzaldia moduan tertulia dialogikoa ere formakuntzarekin ezarriko genuke kritikotasun eta ideologiaren jakintza partekatzen baitu gai anitz askotan.

4.2.1. Klasean tertulia dialogikorako erabilitako gaia: AISIA

Tertulia dialogikoaren inguruko erronka zuen taldeak, aisia hautatu zuen gai moduan. Horretarako hiru testu jorratzeko eskatu ziguten, etxean irakurri eta klasera azpimarraturik ekarriz. Orain aurretiazko lan honen bidez aisiaren inguruko

testuinguratze bat egingo dut, hiru testu hauek kontuan izanik; “Aisialdi humanista”, “Aisiaren funtzioak” gaur egun eta “Baliozko aisia”.

Askotan aisia terminoa eremu asko definitzeko erabiltzen da. Aisia deitzen diogu denbora librean egiten dugun ekintza orori eta hau errorea izango litzakeela argitzen da testuetan. Aisia ez da astialdia, ez da jarduera bat aisiakeria bat, aisialdi humanista, sustraiak motibazioan eta borondatean dituen ekintza eta komunitarioa da. Gizakiaren duintasunaren alde egiten du, gauza guztien gainetik. Positibotzat hartzen den ekintza bat da, pertsona eta komunitatea hobetzen laguntzen baitu, aisiaren hiru balio nagusi oinarri hartuta: askatasuna, gogobetetasuna eta doakotasuna. Identitatea hobekuntza eta justizia ere kontuan izaten ditu.

Giza esperientzia librea eta atsegina da, berezko helburua du, boluntarioa eta beharretatik aparte dago. Aisiaren erreferentzia esparrua pertsona bera da, emozioak dira nagusi, ez da betebeharrak gozamina baizik, balio eta bizimoduetan integratzen da, prozesu izaera du, intentsitate maila desberdinak izan ditzake eta trebatu egin behar da.

Aisiak hainbat funtzio betetzen ditu gaur egun: pertsonalak, sozialak, ekonomikoak eta berritzaileak. Roger Suek dioenez, funtzio psikologiko edo pertsonalak, aisiak ematen dituen konpentsazio pertsonalak dira eta beharrezkoak dira gizabanakoaren oreka pertsonalerako. Funtzio sozialei erreferentzia eginez, aisiak aukera ematen digu denbora partekatzeke, beste batzuekin egoteko eta elkarrekin komunikatzeko. Roger Suek, sozialki hiru eremu azpimarratzen ditu garrantzizko: soziabilitatea, sinbolismoa eta terapia. E. Cohenek bere lanean, aisia jarduerak berrikuntza sozialean eta kultur sormenean duen garrantzia azpimarratzen du, herriaren bizi kalitatea hobetzera zuzenduta daudelarik.

Aisia ematea eta hartzearen topaketa bat da, garapen gisako aisia esperientzia da. Aisia emozioen munduko bizipena da, eta horregatik, afektua oinarri hartuta landu beharra dago, arrazoia eta etsai bihurtu barik. Balio jakin, pertsonal, familiar eta sozialak lantzea eta garatzea funtsezkoa da ekintza garatzerako orduan. Baliozko aisia beraz, sortzailea, aktiboa, solidarioa eta substantziala da. Egiten dugunaren gaineko kontzientzia izatea dakar, ondorioak eta emozioak barne eta aisiaren dimentsio guztiei erantzun beharra daukate, inplikazio fisiko, psikologiko eta soziala eskatuz.

Aisia substantziala, amateur edo boluntario arituta, edo zaletasun baten bitartez, gogobetetasun handia bilatzea modu sistematikoan. Ekintzari ekiten diote beharrezkoak dituzten trebetasunak, jakintzak eta esperientziak partekatzeko. Aisia sormenari lotuta dago zuzenki, esperentziala da. Kultura arloan garatzen da batez ere. Berezkoa eta erraza denetik bereizten da, munduaren ikuspegi eta gozamen konplexuagoan kokatzen gaitu, epe luzera aberasgarriagoa, egokiagoa eta gizatiarragoa den baten. Aisia duina da, solidarioa, iraunkorra eta inklusiboa da. Duintasunetik elkartasunera doa.

4.2.2. Klaseko tertulia dialogikoaren inguruko desglosea

Aurretik esan bezala, talde baten erronka izan zen tertulia dialogikoa aurrera eramatea. Talde honek, ekintza hau gauzatzeko aurretik azaldutako hiru testuak etxean irakurri eta landuta ekartzea eskatu zigun. Klasean geundela talde txikitik banatu ziguten eta talde bakoitzean dinamizatzaileraren papera zuen taldekide bat finkatu zen. Etxean bakoitzak egindako lanean ateratako konklusio, hausnarketa eta nondik norakoak azaldu eta denen artean eztabaida bat sortzeari ekin genion, aisia gaitzat izanik.

Zailtasunak ageri izan ziren aisia zer zen eta zer ez zen definitzerako orduan. Askok denbora librean norberaren disfruterako zen edozer ekintza zela azaldu zuten, beste batzuek, boluntario edo diru baten truk egiten den ekintza oro dela, baten batek, momentuan sentimenduen araberrako gustatutako edo ez gustatutako ekintzak etab.

Azpimarratu nahiko nuke nire taldean ateratako ideia bat: gizartean lehiakortasuna, berekoikeria eta kontsumismoa nagusi diren momentu hauetan, ez dakigu egungo aldaketek eta norabideak norantz garamatzaten, baina, garbi dago, esparru desberdinen arteko errekonozimendu eta elkarlana beharrezkoak direla haur eta gazteak guztion artean egungoa baino gizatiarragoak diren baloreetan hezi nahi baditugu.

Arazoa hurrengoa dela hausnartu dugu,, Manuel Cuencas Cabezas egilearen hitzetan ondo azaltzen dena:

“Aisiaz gozatzeko klabea ez datza diruan, gizakiarenganako errespetuan eta gizakiaren ahalmenetan oinarrituriko balio zenbaitetan baizik: horregatik aisiarako hezkuntzaren jomuga pertsonak balio horiek lehenbailehen idorotzea da. Ezin uka daiteke egungo gizarteak aisia kontsumismoaren sinonimo bilakatu duela, ukiezin zena produktu bihurtu du eta. Azkenean, ordea, aisia zure gustua

egitea da, gustura sentiarazten zaituen horretantxe jardutea. Esker oneko bizipena da, nahi duzulako egiten duzu eta, inork horretara behartu gabe. Eta horretan ez da zertan dirua xahutu. Dena den, aisiaren atzetik dagoen industria geroz eta ahaltsuagoa da, geroz eta eskergagoa, eta hori onuragarria izan daiteke gerora”.

4.3. Euskaraldia

Euskaraldia euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa da, gizartearen gune guztietara zabaldua eta deborari dagokionez mugatua. Gure hizkuntza ohiturak aldatuz euskararen erabilera handitzea du helburu nagusi.

Ariketa kolektibo bat da, maila pertsonalean eta kolektiboan parte-hartzekoa eta helburu finko batzuekin: hiztunen hizkuntza ohituretan eragitea, euskarazko hizkuntza praktikak hedatzeko, norberaren hizkuntza portaera eta ohituren inguruan gogoeta eragin eta aldaketan lagungarri izatea, inertziak apurtzea, gizartean eragina duten era guztietako entitateek hizkuntza ohitura aldaketan babes neurriak hartzea, gizarte aktibazioa, ariketa kolektibo baten bidez, herriz herriko euskaltzaleen artikulazioa bultzatzea eta euskararen aldeko eragileak ekimen bateratu baten bueltan antolatzea. 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra gauzatu zen, Euskal Herri guztiko ehunka herritako milaka parte hartzaileekin.

Klaseko talde bati Euskaraldia aurrera eramateko erronka tokatu zitzairen. Animazio kanpaina bat egin zuten, Euskaraldia hemen zegoela eta parte-hartzea sustatuz. Mozorrotuz, klasez klase Euskaraldiaren nondik norakoak azaldu zituzten, argazki kolektibo bat sortu zuten gizarte langintzako graduako ikasle oro gonbidaturik, Euskaraldian parte hartzeko izen-ematea egiteko sarreran egon ziren zain eta beste hainbat ekintza.

Ander Egg-en sailkapena kontuan izanik, bi eremutan sartuko nuke Euskaraldia. Batetik, kulturaren difusioa, belaunaldietatik berenganatutakoaren eta bizi den kulturaren zabalpenaren barruan eta bestetik, eremu sozialean, bizitza asoziatiboaren sustatzean.

4.4. World kafea

Klasean word kafearen antzeko zeozer egin dugu inprobisatua eta ez prestatua beraz, erronka gauzatu ez bada ere, animazio soziokulturalerako izan daitekeen ekintza honen nondik norakoak azalduko ditut labur.

World kafea garrantzizko gaiei buruzko elkarrizketa aktibo bat sortzeko modu bat da. Sormeneko prozesu bat da elkarrizketa kolektibo batera bideratuta eta non bakoitzaren jakintza eta esku-hartze desberdinen sormena lantzen den, kantitate anitzeko taldeak izateko aukerarekin.

William Greider egileak dioen moduan hitzak berak dakarren metafora da esanguratsua. Irudi bat da non posibilitate anitzen eszenatokia irudikatzen den, inteligentzia kolektiboa sustatzeko erabilgarria izan daitekeena. Konpartitzearen esanahia birplanteatzea, denen kritikotasunaren jabe izatera eta etorkizuna sortzera gidatzen duen ekintza izan daiteke.

Gai baten inguruan talde txikitik eta dinamizatzailer batekin eztabaidatuko da. Taldeetan mugitu eta galdera edo pautak batzuei erantzun dira amaieran ateratako konklusioak komunean jarri. Prozesu honen bitartean, kafea eta pastak izango dira, informal kutsu txiki bat emanez.

Ander Egg-en sailkapenari begira, tertulia dialogikoa eta hitzaldiaren modura, formakuntzaren barruan sartuko nuke ekintza hau, kritikotasunaren zabalpen bat delako eta baita elkar ideologia partekatze bat.

5. Txosten-egilearen gogoeta jorrotutako gaiez

Hainbat dira klasean, taldeka edo banaka hausnartu beharreko gaiak. Animazio soziokomunitarioa oinarritzat hartuta, termino hau zehazki jorrotzeak jada izan du bere konplexutasuna. Hitz honek, esanahi anitz eta konplexua dakar, prozesu oso bat dela medio.

Animazio soziokultural edo soziokomunitarioa sentimendu, emozio eta pertsonen mundu bat da, enpatia, boluntariora, sormena, bizitzak eta beste hainbat elementurekin elkarlanean haritzen dena. Animatzaile soziokulturalaren profesioan dagoen pertsona, esfortzua jarri behar du proiektu espezifikokoak egiterakoan, testuingurua, pertsonaren

perfila, limitazio fisiko zein psikikoak, autoestima, errespetua eta konfiantza kontuan hartuz, hau da, pertsonarekin egiten du lan, bera entzuten eta ulertzen.

Definizio, ezaugarri eta nondik norakoak azertu ondoren, burura galdera bat datorkit: Animatzaile soziokulturala profesioa izan beharra du edo gizarte langile orok izan beharko lukeen gaitasuna da? Ondo iruditzen zait profesiotzat hartzea beharrezkoa baita espezializazio bat, oso garrantzitsua baita pertsonekin lan egiterako orduan ahalik eta formatuen izatea interakzio zuzena izango duen profesional hau. Bestetik aldiz, dudatan jartzen dut profesio bat izan beharko lukeela, oraintxe esandako argumentu bera dela medio, gizarte langileak pertsonekin zuzenki lan egiten duen heinean, ez luke profesio honetako pertsona orok espezialitate hau izan behar? Azken finean ezaugarriak eta baloreak bai gizarte langile zein animatzaile soziokomunitarioarenak ez ahal dira antzekoak edo osagarriak? Ez daukat erantzun zehatzik.

Hirugarren eta laugarren atala kontuan izanda, animatzaile soziokomunitarioaren lanaren emaitzak ikusi ditzakegu eta honek sortzen dituen onurak, kasu errealetan ikusten baititugu islatuak. Bizilagun Algortan, Abaurregaineko proiektua, Euskaraldiarekin egindako lana, aisiaren inguruko tertulia dialogikoa, Bizipozaren inguruko hitzaldia eta klasean erdixka burututako praktikei buruzko work kafea ditugu animazio soziokulturalaren adibide zuzen eta hausnartuak. Hauei esker konturatu gara ekintzen praktikotasunaren garrantzia eta posibilitatea garatu eta gauzatzeko, amaieran honi onurak ateraz. Zuzenean eta lehenengo lerroan ikusi ditugu hauetarikoak eta bertatik atera ditugu hainbat gaiekiko ondorioak. Beraz animazio soziokulturalaren eraginkortasuna onuraduna da eta asko ikasten da era dinamiko eta eramangarrian. Gainera, hainbat direnez egin ahal diren ekintzak, modu oso desberdinetan eta bakoitzaren gustuaren arabera izan daitezke, gizarteko pertsona orori hurbilduz eta moldatuz.

Bibliografia

- Bizilagunak. (2014). Bizilagunak la familia de al lado. Getxoko Udala
- Bizipoza (2019) Bizipoza elkarte. URL: <http://www.bizipoza.eus/>.
- Castro Lerma, I. (2017). *La Exposición como Estrategia de Aprendizaje y Evaluación en el Aula*. 1st ed. Quitó: Razón y Palabra.
- Cuenca Cabeza, M (2012). *Zer da aisia?*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

- ETB. (2018). Abaurregaineko biztanleak triste? Bilbo: ETB.
- Euskaraldia (2018). Euskaraldia 11 egun euskaraz. URL: <https://euskaraldia.eus/es/>
- Ezequiel, Ander-Egg. (2000). Metodología y práctica de la Animación Sociocultural. Madrid: CCS.
- Froufe, S & Sánchez, M^a A. (1998). Animación sociocultural. Nuevos enfoques. Salamanca: Amarú.
- Guadalupe, S. (2018). Intervencao comunitaria em a rede. Coimbra: ISMT.
- París, C. (2014). *Reflexiones sobre el discurso oral. Hablar en público.*. 21st ed. ISSN 1132-1814, N^o. 21, 2014, págs. 75-90: Ribalta: Quaderns d'aplicació didàctica i investigació, pp.págs. 75-90.
- Ventosa, Víctor J. (2016). Didáctica de la participación. Madrid: Narcea.
- Úcar, Xavier (1994). El estatuto epistemológico de la animación sociocultural. *Teoría de la educación*, 6, 162-166.
- UNESCO. *Organización de las Naciones Unidas para la educación, la ciencia y la cultura.* <https://es.unesco.org/>